



## OSTALARITZA MAHAIA.

2022ko urriak 25

### GAI-ZERREDA:

- ✓ Ongietorria eta sektorearen egungo egoeraren azterketa.
- ✓ Bidalitako dokumentu erantsiaren gaineko zalantzak
- ✓ Informazioa hurrengo gaiei buruz:
  - Getxo Bono 2023 kanpainaren udal-proposamena
  - Eskaintza eta eskaria aztertzea; tokiko ostalaritza dinamizatzeko jarduketaplana
  - 2022ko kontrataziorako laguntzak
  - Kanpo-sustapeneko hurrengo ekintzak – Bilbao Bizkaia
  - <Getxoz gozatzeko planak 2023> kanpaina
  - Turismo-sektoreko berariazko aholkularitza- eta prestakuntza-programak
  - Foroko postu hutsak betetzea
- ✓ Ideia eta proposamen berriak

### BERTARATUAK: (% 25)

DEITUTAKOAK		BERTARATUAK	BERTARATU GABEAK	
			Arrazoia emanda	Arrazoirik eman gabe
Algorta-Andra Mariko jatetxeen ordezkaria	Monica Sésar (NIKKOU)		X	
Algorta-Andra Mariko taberna eta kafetegien ordezkaria	Postu hutsa			
Ereaga, Portu Zaharra, Kirol Portua eta Neguriko taberna eta kafetegien ordezkaria	Kotska Mandaluniz (BORDA ERRETEGIA)			X
Ereaga, Portu Zaharra, Kirol Portua eta Neguriko jatetxeen ordezkaria	Postu hutsa			
Areetako jatetxeen ordezkaria	María del Fresno			X



	(La KAZUELA)			
Areetako taberna eta kafetegien ordezkaria	Ana García (PIANAMUL)	X		
Romoko tabernen ordezkaria	Per Urriolabeitia (LA MONA)			X
Romoko jatetxeen ordezkaria	Postu hutsa			
Getxo Enpresa	Desiree Yeste (OKU LOUNGE)	X		
Asohge	Jorge Alonso		X	
Romo Bizirik	Paloma Parra			X
Getxoko Udala – Ekonomia Sustapeneko Arloa	Mirene Zabalgogezkoa	X		
	Sonia Urdiain	X		
	Aitor Zorrilla	X		

## EDUKIAK:

### 1. Bertaratutakoei agurra eta sektorearen egungo egoeraren azterketa.

Bertaratuak agurtu ondoren, azalpen txiki bat eman da sektorea eta denboraldia nola doazen azaltzeko.

Horren ildotik, bertaratuek (ostalaritzako lokal bat daukate biek Areetan) azaldu dute egoera: biztanleria oso zahartuta dago. Algortarekin alderatuz gero, adin-desberdintasun handia dago kontsumitzaileen artean. Bestalde, ostalari biak bat datoz esatean astelehenetik ostegunera ez dagoela mugimendurik eta fakturazioko bolumenik handiena asteburuetan izaten dela (ostiral, larunbat eta igandeetan). “Zer eskaini dezaket jendeak nire establezimenduan kontsumitu dezan?”, galdetu du Desiree Yestek, Getxo Enpresako ordezkariak. Mirene Zabalgogezkoa, Ekonomia Sustapeneko Arloko teknikariak, adierazi du, sektorean dagoen eskaintza eta eskariaren gaineko azterketatik lortu diren datuak oinarri hartuta, ondorioztatu zela kontsumitzaileak giroa zegoen lokaletara joaten zirela.

Ana García, Areetako taberna eta kafetegien ordezkariak, giroaren adibide gisa jarri du Algortan ostegunetan egiten den pintxopotea, eta nabarmendu du Algortako aparkalekua zoragarria dela, oso prezio ekonomikoan aparkatzen baita. Horren harira, Ana García proposatu du aparkaleku bat egitea Mercadona gunearen ondoan, Leioa eta Getxo artean, jendeak irisgarritasun handiagoa izateko eta beren ibilgailua erabiliz joan ahal izateko Areetara. “Jendeak barneratuta dauka Algortan dagoela <giroa>”, kexatu da Desiree Yeste.

"Giroa" sortzeko asmoarekin, Ana García proposatu du jarduerak egitea kalean, esate baterako merkatuak (janaria, *vintage* arropa, artisautza eta abar saltzeko). Mirene Zabalgogezkoa, Ekonomia Sustapeneko Arloko teknikariak, salmenta ibiltariari buruzko ordenantza aldatzen ari dela jakinarazi du, eta adierazi du gaur egun jendaurrean dagoela erakusgai, pertsona guztiek proposamenak egin ahal izan ditzaten. Zerbitzu Orokorren Arloa arduratzen ari da ordenantzaren aldatetaz, baina Ekonomia Sustapeneko Arloak xehetasun gehiagoko ikuspegia emango du araudi berria aplikatzeko baldintzak zehazteko, betiere sektorearen ekarpenak kontuan hartuta.



# Getxo

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

*bizi ezazu*

Sektoreko ordezkariak, oro har, bat datoz esatean merkatuak, salgaiak... oso erakargarriak direla jendearentzat eta udalerrian kontsumoa sor dezaketela.

Horrez gain, Mirene Zabalgogeoazkoak adierazi du Ekonomia Sustapeneko Arloan lanean ari direla ostalaritza-sektorearen dinamizazio-plana egiteko, baina azpimarratu du lankidetzeta publiko-pribatua egon behar dela.

Ana García harritu da duela gutxi turista asko ikusi zituelako udalerrian. Sonia Urdiainek, Ekonomia Sustapeneko Arloko teknikariak, erantzun du gurutzaldi atipikoa dela, Getxotik ateratzen baita. “Hartu ditugun 70 gurutzantzietatik, aurten Getxotik irten den bakarra da”, aipatu du Sonia Urdiainek.

## **2. Bidalitako dokumentu erantsiaren balorazioa**

Hainbat alderdi politikok eta ordezkariak egindako iradokizunen ondoren, hartutako metodologia berria azaldu du Mirene Zabalgogeoazkoak, hots, egindako proiektuen aurrerapena eta prozesua jasotzen dituen laburpen-fitxa, bilera baino lehen bidaltzekoa. Ez da horren inguruko galderarik egin.

## **3. Informazioa hurrengo gaiei buruz:**

### **a) Getxo Bono 2023 kanpainaren udal-proposamena**

Mirene Zabalgogeoazkoak jakinarazi du laster Ekonomia Sustapeneko Arlotik inkesta bat bidaliko zaiela Getxo Bono 2022 kanpainari atxikitako establezimendu guztiei, Getxo Bono 2022ren hainbat alderdi balora ditzaten. Gainera, azpimarratu du garrantzitsua dela ahalik eta establezimendu gehienek erantzutea kanpainaren irudi osoa izateko, eta 2023ko kanpainari begira edozein ekarpen edo iradokizun egitea.

Udal-eremuan aipatu diren ideietatik honako hauek nabarmendu dira:

- Pertsona bakoitzeko bonu-kopurua murriztea.
- Tiket bakoitzeko bonu-kopurua murriztea.
- Gehieneko muga bat jartzea establezimendu bakoitzeko bonuen trukeari.
- Parte hartzen duten sektoreen kopurua murriztea.

Parte hartu duten sektoreen kopurua murriztu izanari dagokionez, Mirene Zabalgogeoazkoak adierazi du, aurreko bileretan ostalaritzako sektoreak egindako ekarpenak baloratu ondoren, Getxo bono 2023 kanpainan ez dela ostalaritzako sektorea sartuko eta, horren ordez, beste ekintza-mota batzuk egingo direla.

Bertaratutakoak ados daude.

### **b) Eskaintza eta eskaria aztertzea; tokiko ostalaritza dinamizatzeko jarduketa-plana**

Mirene Zabalgogeoazkoak azaldu ditu ostalaritzako lokala dinamizatzeko aztertzen dabilzan ideiak, jarduketa-plana egiteko:



# Getxo

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

*bizi ezazu*

- Gastronomiari buruzko hainbat aste tematiko jasotzea egutegian.
- Unean uneko ekitaldiak sustatzea: garagardoen dastaketa, kontzertuak lokaletan...
- Beste ekitaldi kultural batzuetan laguntzea.
- Pintxo-txapelketa.
- ...

Desiree Yeste eta Ana García bat datoz: garrantzitsua da ostalaritza dinamizatuko duten jarduerak egitea; interes eta ilusio handia erakutsi dute proiektuarekiko: “Duela zenbait urte Apirileko Feria antolatzen genuen eta jende asko joaten zen tematika horren arabera jantzita, baina egiteari utzi genion”, gogoratu du Desiree Yestek.

### c) 2022ko kontrataziorako laguntzak

Jakinarazi da aurtengo urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitartean langileak kontratatu dituzten establezimendu guztiek aukera izango dutela, gainerako baldintzak betetzen badituzte, laster argitaratuko diren kontrataziorako laguntzak eskatzeko: [Getxo --Ekonomia Sustapena - Dirulaguntzak - Hurrengo dirulaguntzak kontrataziorako 2022](#)

### d) Kanpo-sustapeneko hurrengo ekintzak – Bilbao Bizkaia

WORKSHOPS BILBAO BIZKAIA 2022



DINAMARCA

Copenhague



OCTUBRE  
Jueves



Roadshow  
ALEMANIA

Frankfurt



NOVIEMBRE  
Martes

Düsseldorf



NOVIEMBRE  
Jueves



ESTADOS  
UNIDOS

Los Ángeles

Semana del 05  
DICIEMBRE  
(pendiente confirmación)

Sonia Urdiainek funtzionamendua azaldu du, eta nazioarteko hainbat merkatuen baitan egingo diren kanpo-sustapeneko hurrengo ekintzak – Bilbao Bizkaia jakinarazi ditu.

Sonia Urdiainen ustez, interesgarria da ekintza aurkeztea honako helburu hau lortzeko: “enpresa bakoitzak <hartaileekin> harremanetan egoteagatik eta haiek zuzon eskaintza nazioarteko topaguneetara eramateagatik dauzkan negozio-aukerak aztertu eta baloratu ditzan”.

Interesa dutenak honako hauekin jarri beharko dira harremanetan:

[ATRAE](#) – Euskadiko Turismo Agentzia Hartzaile Elkartuak  
[ASOARTE](#). Euskadiko Turismo Agentzia Hartzaileen Elkartea



# Getxo

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

[Home – Euskal BAPen elkarte \(opce.eus\)](#): biltzar- eta ekitaldi-antolatzaile profesional diren enpresen euskal elkarte

## e) <Getxoz gozatzeko planak 2023> kanpaina

Sonia Urdiainek jakinarazi du bidali berri dela "Getxoz gozatzeko planak 2023" kanpainarekin bat egiteko mezua; azaldu du doako kanpaina dela eta fitxa betetzeko garrantzitsua dela irakurtzea kanpainarekin bat egiten duten enpresek beren gain hartzen dituzten konpromisoak.

2022ko kanpainan sartutako ostalaritzako planak ikusi, ideiak hartzeko: [Getxo – Zer egin – Getxo gastronomikoa](#)

## f) Turismo-sektoreko berariazko aholkularitza- eta prestakuntza-programak

Sonia Urdiainek gogorarazi du aholkularitza- eta prestakuntza-programa ugari biltzen dituen buletina bidali berri dela, eta azpimarratu du garrantzitsua dela enpresa bakoitzak antzematea zein esparrutan hobetu behar duen, bere beharrianak ondoen aseko dituen prestakuntza hautatzeko.

[https://www.getxo.eus/DocsPublic/20221004\\_NEWSLETTER\\_Especial\\_Turismo.pdf](https://www.getxo.eus/DocsPublic/20221004_NEWSLETTER_Especial_Turismo.pdf)



### [Programa de diseño de servicios](#)

¿Pensando en diseñar una nueva experiencia, se producto turístico para 2023?  
Talleres y sesiones individuales en Getxo Elkartegi

Inscripciones: Hasta el 26 de octubre



### [Turisberri - Servicio de innovación para empresas de Bizkaia](#) (Diputación Foral de Bizkaia)

¿Cómo puedes adaptar y definir nuevos servicios | respuesta a estas tendencias de consumo en turisr

Inscripciones: Hasta el 10 de octubre



### [Basquetour Learning](#)

Formaciones en competencias digitales específ turismo: "Comunicación con el turista digital", ^ novedades en Redes Sociales orientadas al turism

### [Programa Anfitriones](#) (Secretaría de Estado de Turi

Formaciones dirigidas a potenciar las competenc demandadas del sector: "Comunicación efectiva", " en Detalle", "Turismo accesible", "Instagram establecimientos turísticos",....

## g) Foroko postu hutsak betetzea

Gogorarazi nahi dugu postu hutsak ditugula oraindik ere, eta komenigarria izango litzatekeela horiek betetzea, eremu- eta establezimendu-mota guztietako



**Getxo**  
*bizi ezazu*

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

informazioa, proposamenak eta iradokizunak lortzeko. Honako hauek dira bete barik dauden postu:

- Algorta-Andra Mariko tabernen ordezkaria
- Portu Zaharra–Ereaga–Kirol Portua
- Romoko tabernen ordezkaria
- Romoko jatetxeen ordezkaria

#### 4. Ideia eta proposamen berriak

Desiree Yestek laguntza-lerro bat eskatu du argiaren kostuaren igoerari aurre egiteko: "Nire argiaren faktura hirukoiztu da", adierazi du Desiree Yestek.

MAHAIAREN ERABAKIAK (2022-10-25):

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Bilerako aktaren zirriborroa bidaltzea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
2. Postu hutsak bete daitezen sustatzea	Sektorea bera	Bileratik aurrera
3. Areetako aparkalekuko tarifak kontsultatu	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera